ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0003**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA**

2020-05-26ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko maiatzaren 26an, arratsaldeko 20:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Unai Dorronsoro Olarra
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2019KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA
4. 2021EKO JAI EGUN LOKALA
5. HILERRIKO PROIEKTUA
6. EUDEL
7. HARROBIKO LEHERKETAK
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-03-10eko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 23 eta 44 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2019KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Alkateak 2019ko 39/2020 likidazio dekretuaren berri eman du.

2019ko emaitza 78.540,92 €-koa izan da.

2019ko diruzaintzako gerakin gordina 318.303,84 €-koa da eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 312.086,40 €-koa.

Albizturko udalaren zorpetze maila %20,23koa da.

Aurrekontu Egonkortasuna, Finantza Iraunkortasuna eta Gastu Arauaren txostenak zera dio:

Toki entitate honek, betetzen ditu aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2019. urterako ezarritako helburuak, baina ez gastu araua. Hala ere, aurrekontu gastu araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 1.1 eta 3. erregeletan ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena egin du, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomiko finantzarioa ordezkatuko duena.

4. 2021EKO JAI EGUN LOKALA

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2021erako Albizturko langileentzako jai egun lokal bezala abuztuaren 16a ezartzea.

Bigarrena.- Eusko Jaularitzari honen berri ematea.

5. HILERRIKO PROIEKTUA

Covid-19aren krisiak eragin duen sarrera murrizketaren ondorioz (Fondo Forala %20 gutxitu du Gipuzkoako Aldundiak), hilerriko hasierako proiektua aldatzea erabaki da.

Kolunbarioak eraikiko dira errautsak edo hezurrak bertan sartu ahal izateko.

Nitxoetan 10 urte baino gehiago daramaten gorpuak atera egingo dira behar berriei aurre egin ahal izateko, eta familiei aukera emango zaie hezurrak kolunbarioan edo hezurgeti komunean sartzeko.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Hilerriko proiektu berria onartzea.

Bigarrena.- Lanak hasteko beharrezko pausuak ematea.

6. EUDEL

2020ko martxoren 25ean Eudel-eko gutun bati sarrera eman zitzaion Albizturko Udalean, Albiztur ez zela Eudel-eko kide eta bazkide egiteko gonbidapena luzatuz.

Gaia landu ondoren Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albiztur Eudel-eko bazkide egitea.

Bigarrena.- Eudel-i erabakiaren berri ematea.

7. ARROBIKO LEHERKETAK

Erdigunea 48, 49 eta 51 etxebizitzetako bizilagunek eskabidea sartu dute Albizturko Udalean, beraien etxeetako fatxada eta terrazetan kalteak dituztela, eta harrobia gertu edukitzeak eta azkenaldian jasandako gehiegizko eztandek zerikusia dutenaren ustea adieraziz.

Bizilagun hauetako batzuk Osoko Bilkurara gerturatu dira, eta lehen pausu bezala Albizturko Udalak harrobiko arduradunei bilera eskatzea adostu dugu.

8. GALDERA ERREGUAK

- Udalekuak: Azken erabaki bat hartzeko oraindik informazioa falta zaigu eta egoera gehiago argitu arte itxarongo dugu.

-Semaforoa: Gaur egun dagoen semaforo sistema eta koskak aldatuko dira; bide nagusiko 2 semaforoak intermitentean egongo dira eta eskolako bidekoa gorrian, eta kotxeren bat hurbiltzen denean eskolako bidekoa intermitentean jarriko da eta beste biak gorrian. Bide nagusiko koskak ere aldatzea erabaki da kotxeak poliki ibil daitezen.

- Igarango ur depositoko platanondoak: Euskal Egurra S.L. enpresak Igarango platanondoak moztu ditu, nahiz eta platanondo horiek Albizturko Udalarenak diren. Kalte ordaina eskatzea adostu da.

- Haurreskola: Covid-19ak sortu duen egoera dela eta gerta daiteke hurrengo kurtso hasieran hilabete batzuz behar adina haur (3) ez izatea haurreskolan. Egoera horretan suertatuko bagina Albizturko Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu haurreskola irekita mantentzeko.

- Txakurren bandoa: Azken aldian txakur jabe batzuk izan duten portaeraren ondorioz beharrezkoa ikusten da txakurren inguruko bandoa kaleratzea (iturrian ezin direla bainatu, kakak jaso beharra dagoela eta leku publikoetan lotuta egon behar dutela).

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

1.- 2019ko Kontu Orokorraren txostenaren argitalpena onartzea.

Kontuen Batzordeak aho batez honakoa onartu du:

Lehena.- 2019ko Kontu Orokorraren txostena jende aurrean jartzea eta GAOn horren berri ematea.

Osoko bilkura, 22:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko ekainaren 8an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:50:16 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:14:34 +02'00'